



## ❖ PLENOA

### Plenoa gaur arratsaldean

Plenoa izango da gaur udaletxean. Etxebizitza tasatua arautzen duen ordenantzaz eta herritarren elkarbizitza eta bide publikoen erabilera arautzen duen ordenantzaz hitz egingo da. Udalak egindako adierazpen bat ere badago gai ordenean, herrian emakume batek izandako eraso baten inguruan. Horrekin batean, *Salpuespen egoerari stop!* izenburuarekin aurkeztutako mozio batetaz ere hitz egingo da gaurko plenoan. 18:00etan, Udaletxean. ■

## Udaletxeko Bozeramaile Batzordeak azken atentatuak gaitzesten dituen adierazpen instituzionala onartu du

Mozioa PSE-EE, EAJ-PNV, EA, PP eta EBko udal ordezkariak aurkeztu dute eta haien aldeko botoarekin onartu da. Gobernu Taldea ez da Bozeramaile Batzordean izan.

**BOZERAMAILE** Batzordea izan zen atzo Udaletxean eta bertan ETArekin azken atentatuak gaitzesteko adierazpen instituzionala aztertu zen, PSE-EE, EAJ-PNV, EA, PP eta EBk aurkeztuta. Adierazpena onartu egin zen aipatutako alderdien aldeko botoarekin. Bestalde, Gobernu Taldea ez zen Bozeramaile Batzordean izan eta testu bat bidali die gainerako alderdi politikoei, honen arrazoia azalduz.

### Onartutako mozioa

Bozeramaile Batzordean onartutako mozioak ETAK Ondarroan eta Gasteizen izandako atentatuak gaitzesten ditu, eta batez ere Santoñan izandakoa, Luis Conde de la Cruzen heriotza ekarri duena eta elkartasuna helarazten die hil-

dakoaren senitarteko, adiskide eta lagunei. Hona puntuz puntu mozioak dioena:

• «ETAK burututako hilketa hau eta beste atentatuak basakeriaren eta gizatasun ezaren beste erakusle dira. Hernaniko Udalak nahi du Santoñako eta Ondarroako atentatuetan zauritutakoak azkar sendatzea».

«Hernaniko Udalak lanean jarraitu nahi du demokrata guztiak elkarrekin lanean aritzea indartzeko»

Adierazpenean elkartasuna eta gertutasuna adierazten diete hiru atentatuetako «biktimei, senitartekoei eta lagunei».

• «Hernaniko Udalak azaldu nahi du, halaber, guztiz sinetsita dagoela, terroristen indarkeriak

oinazea eta gaitzespena baino ez duela eragiten herritar gehienengan. Horregatik, ETARI eskatu nahi dio behin betiko desagertu dadila inolako baldintzarik gabe. Horrekin batera helarazi nahi dio euskal gizarteak bakearen eta elkarbizitza baketsuaren aldeko apustua egin duela, eta indarkeriazko ekintza ankerrak guztiz gaitzesten dituela».

• «Hernaniko Udalak atentatu hauek gaitzesten ditu baita ere, atentatuen egileen koldarkeriaren eta ankerkeriaren beste erakusgarri bat direlako. Ekintza horrek beren eta ekintza horiek babesten dituztenen zitakeria morala agerian uzten du. Udalak nabarmendu nahi du terroristen zentzugabekeria eta erokeria; izan ere, bomba-autotako bat aldeztu aurretik jakinarazi gabe leherrarazi zuten eta beste oso denbora gutxiarekin jaki-

narazita. Horrek erakusten du Ondarroan eta Santoñan ahalik eta oinazetik haundiena eragiteko zuten grina. Atentatu hauek behartzen gaitzeste gure erabateko gaitzespena adieraztera isiltasun lotsagarriari eusteko edonolako kontsiderazioen atzean babesten denari».

• «Hernaniko Udalak lanean jarraitu nahi du demokrata guztiak elkarrekin lanean aritzea indartzeko, terrorismoarekin bukatzeko, eta herri honi proiektu totalitarioa inposatu nahi diotenei aurka eginez, eta gure herrian bakea, askatasuna eta elkarbizitza baketsua lortzeko lan eginez».

• «Udalak baita ere herritarrek animatu nahi ditu atentatu terrorista horiek gaitzesteko eta biktimei elkartasuna adierazteko ekitaldi guztietan parte hartzea». ■

## ❖ DEIALDIA

### Gaurko plenora eta kontzentziora joateko deialdia

Gaur arratsaldeko 18:00etan plenoa izango da udaletxean. Ezker Abertzaleak deialdia luzatu die herritarrei «ilegalizazioaren estrategia salatze» plenora eta ondoren plazan egingo den kontzentziora joateko. ■

## ❖ ATXILOKETA

### Unai Fano hernaniarra da herenegun Frantzian atxilotuetako bat

Herenegun Frantziako Trelins herrian atxilotutako gizonetako Unai Fano hernaniarra dela egiaztatuta da. Unai Fano atxilotzeko agindua eman zuten otsailean Baltasar Garzon epaileak, «Batasunaren izenean aritzeagatik hau legez kanpo egonda». Epaileak frogatzen erabili zuten Iruñean Loiolako negoziatzaile buruzko hitzaldi batean parte hartu izana, Pernando Barrena eta Patxi Urrutiarekin batean. Atzo mobilizazioak deitu zituzten herrian atxiloketa salatzen. ■

## Alkateak Bozeramaile Batzordeetara ez joateko erabakia hartu du

ALKATEAK gutun bat bidali die oposizioko alderdiei Bozeramaile Batzordera joan ez izanaren arrazoia azaltzeko. Honela dio gutunak:

«Epaitegi Gorenak EAE-ANV alderdia legez kanpo uzteko hartutako erabakiaren aurrean eta erabaki honek izan ditzakeen ondorioen zain, jakinarazi nien (oposizioko alderdiei) epaitegiaren autoaren ondorio posiblen aurrean, ez nituela Bo-

zeramaile Batzordeak deituko.

Erabakia Alkate naizen aldetik hartu dut, ulertzen baitut badituela Udalak bideak eta bitartekoak edozein gai aztertu ahal izateko, baita akordioak hartzeko ere, derrigorrez horretarako Bozeramaile Batzordea deitu gabe. Honen zergatia da sententziaren arabera EAE-ANVren hautes zerrendan aurkeztu ginen zinegotziak ezin dugula talde politiko modura

aritu, eta hain justu Bozeramaile Batzordea da hauek ordezkatzeko dituen udal organoa.

Hori dela eta, bozeramaile lana egiten jarraitzeko ezintasunaren aurrean, eta ulertuz ezintasun horrek galarazi egiten duela Bozeramaile Batzordeak 2007ko Udal Hauteskundeetan emaitzek utzi zuten ordezkari-tza plurala bere osotasunean ordezkatzeko, uste dut ezin dela hau organo legitimotzat hartu,

ezta egokitzat ere, udal mailan aztertu eta erabaki nahi den edozein gai eztabaidatzeko.

Horregatik, PSE-EEko ordezkariak eskatu bezala Bozeramaile Batzorderako deialdia egin dudana arren, ez naiz bertara agertu, ezta agertuko ere aurrerantzean, lehen esan bezala, Epaitegi Gorenak EAE-ANVren ilegalizazioaren inguruan kaleratutako epaiaren ondorioak argitu arte». ■

### TRIPA BETE NAHI?

PINTXOAK, RAZIOAK,  
ENTSALADAK,  
PLATER KONBINATUAK

ZATOZ DASTATZERA!

**TRIPONTZI TABERNA**  
EGUNERO MENUAK

Kardaberaz, 11 tf. 943555724



**ITXASPE**

Arrendegia

Antziola 5

Tel.: 943 330 365

Mobila: 653 74 10 97

20120 Hernani

## HERNANI ENGLISH

### HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)

Rebeka D., Ibai Z., Jon I. eta Iñaki A.  
ZORIONAK FIRST ATERA DUZUELAKO

MATRIKULA IREKITA IRAILA OSOAN

- ORDUTEGIA: 12:00 - 13:30

18:30 - 20:00

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08

Kale Nagusia 41 - 1

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 I. DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
✚ FARMAZIAK ● Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguna giro grisa eta freskoarekin hasiko da. Arratsaldean ostarreak zabalduko diren arren, gau aldera berriro ere lainotu egingo du. Tenperaturak berdin.  
**BIHAR** Egunaren hasieran lainoak izango diren arren, aurrera joan ahala eguzkia nagusituko da. Tenperatuak berdin jarraituko da. (euskaime)

## Zinkoeneako obrak direla eta, bide aldaketa izango da

ZINKOENEAKO obrak direla eta, hainbat bide aldaketa egin dira, izan ere, lanak Txirrita kalea eta Kale Nagusia elkartzen diren lekura iritsi dira. Beraz, Galarreta eta Sorgintxulo aldetik Zinkoeneara dijoazen automobilerik ezin izango dute Karabel, Zikuñaga eta Astigarraga aldera dijoan bidea hartu. Norabide horretatik datozen automobilerik aukera bakarria izango dute: Txirrita kalean barrena Elkano kalera joatea. Beraz, Astigarraga, Karabel eta Zikuñagara joan nahi dutenek Hernaniko sahesbidetik joan beharko dute, errepide berritik. Hau da, Hernani kanpokaldetik, Urnieta aldera dagoen errontondan barrena, Hernaniko sahesbidean sartu beharko dute, Karabel, Zikuñaga eta Astigarragara joateko. ||



Galarreta aldetik datozen kotxeek ezingo dute Zinkoenean barrena Karabel, Zikuñaga eta Astigarragara joan.

### ❖ HITZALDIA

#### Rebirthing arnasketa motaren inguruko hitzaldia Biterin

Marijose Truebak Rebirthing arnasketa motaren inguruko hitzaldia emango du gaur Biteri Kultur Etxean. Hitzaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da eta debalde izango da. ||

### ❖ BERTSO ESKOLA

#### Bilera bihar Biterin

Bertso Eskolak ikasturte berria hastear du eta ondorioz, ikasturtearen gora beherak azalduko dituen bilera antolatu du bihar. Bilera ikasturte berrian parte hartu nahi duten haur, gazte eta hauen gurasoei dago zuzendua. Hitzordua arratsaldeko 17:00etan Biteri Kultur Etxean. ||

### ❖ AAM

#### Biharko kontzentrazioa Donostian egingo da

Donostiako Zinemaldia dela eta, biharko kontzentrazioa ez da Hernanin egingo, Donostian baizik. AAM-k dei egin die senide eta herritarrei Donostian egingo den kontzentrazioa joateko. Konstituzio plazan, arratsaldeko 20:00etan. ||

### ❖ BERDINTASUNA

#### Jabetze eskolak aurkezteko kontzertua larunbatean

Jabetze Eskolen ikasturte berriari hasiera emateko Ainara Ortega-Iñaki Salvador Quartet taldearen kontzertua izango da larunbatean Leokako Labaderoan. Taldeak kontzertua irailaren 13an eskaini behar zuen arren, eguraldi txarra zela eta atzeratu egin zuten. Beraz, larunbatean izango da

Leokako Labaderoan arratsaldeko 20:30etan hasitako. Eguraldi txarra eginez gero, Biteri Kultur Etxean egingo da. ||

### ❖ KONTZERTUA

#### Turlach taldearen kontzertua

Turlach taldearen kontzertua izango da gaur Kixkal tabernan. Beraz, musika irlandarra entzun nahi dutenek aukera izango dute, gaur gaueko 22:00etatik aurrera. ||

### ❖ TXANTXANGORRI

#### Ehizako postuen zozketa

Ostiralean Txantxangorri Elkartearen izango den Sagardo Lehiaketaren ondorioz, egun horretan egingo diren ehiza postuen zozketak ordubate aurreratuko dira. Beraz, ostiralean zozketak arratsaldeko 19:00etan izango dira. ||

### ◆ ZIKLOTURISTAK

#### Bilera bihar

Joc-Zikuñagako Ama zikloturistak antolatua bilera izango da bihar, taldearen lokal berrian (Transpar). Bilera bizikletan interesatuta dauden guztiei dago zuzendua. Zita, bihar, arratsaldeko 20:00etan. ||

### ❖ OLIO BILKETA

#### Gaur herrian eta Ereñotzun

Hileko azkeneko osteguna izanik, olio eta etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko furgoneta Ereñotzun izango da gaur 16:00etatik 16:20etara eta ondoren Urbieta kalean, feriaren inguruan, 16:30etatik 19:30etara. ||

### ❖ PRESOK

#### Amnistiaren aldeko futbito txapelketa

Larunbatean, irailak 27, amnistiaren aldeko futbito txapelketa jokatuko da Zubipen. Izena eman nahi izanez gero, Aker edo Garin tabernetara jo edo 697 543 253 zenbakira deitu. ||

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## † PRUDENCIO ELORZA OYARBIDE

JAUNA  
Atzo hil zen 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Anai-arrebak: Pilar eta Manuel Arozamena; ilobak: Manoli eta Sebastian, Maria Jesus eta Jose Mari (†), Ignacio eta Consuelo, Joaquina eta Jose, Milagros eta Miguel, Maria Pilar eta Jose Manuel, Juan Jose eta Miren, Maria Jesus eta Luis, Mari Carmen eta Gabriel, Juan Ignacio, Felipe eta Rosario, Luis eta Karmele, Miguel eta Mercedes, Mari Carmen, Idoia eta Luis, Jose Manuel eta Nieves; iloba txikiak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Hernaniko **JUAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko irailaren 25an

Helbidea: Pardiola Txiki baserria - Osiñaga auzoa.

Oharra: Gorpua HERNANIKO ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

## † LEHENENGO URTEBETETZEA MIREN ALDASORO GOROSABEL

ANDREA  
Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Senarra: Ramon Sagarna; seme-alabak: Juan Ignacio eta Segunda Sampedro, Maria Teresa eta Ismael Baro, Ramon eta Jasone Goñi; bilobak: Axier eta Marilo, Xabi, Nahia; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA** arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **JUAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko irailaren 25an

Halabeharrezko helbidea: Elkano 12 - 6.D

### ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxea salgai Hernaniko kaxkoan (eraikin berria, 10 urte) + trasteroa.

Deitu: 00 33 559 262 572 / 659 977 096

Haurrak zaindu edo/eta etxeko lanak egingo nituzke goizetan. Deitu: 619 129 803

Magisteritzako ikasle bat behar da 3. mailako ikasle bati klaseak emateko. Deitu: 677 724 771

Emakume euskaldun bat behar da adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, Amaran (ospitalen inguruan). Turnoka, goiz edo arratsalde. Deitu: 943 55 76 26.

Etxea salgai Kaleras auzoan. 2 gelako etxe polita, eguzkitsua eta ondo kokatuta.

Deitu: 619 813 357.

Gela baten bila nabil (300 euroko alokairua gehienez). Deitu: 696 166 110

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 80m2 + almazena 80m2. Deitu: 607 914 938 / 669 977 139.

Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Orekatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko.

Haurraren garapena osasuntsua eta zoriotsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informetibo. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)